

B

BARREN

A portrait of Jose Luis Belloso, an older man with thinning grey hair, wearing dark-rimmed aviator sunglasses. He is dressed in a dark blue zip-up jacket over a brown and white plaid shirt. The background is a blurred outdoor setting with stone walls.

**“Eliza denean dago
atzeratuta”**

Jose Luis Belloso, apaiza



UDAL
EUSKALTEGIAK
www.UDALEUSKALTEGIAK.net

Nafarroa Enparantza, 2
943 742 731
20870 ELGOIBAR
elgai.euskal@udal.gipuzkoa.net

Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitatea
25.
urteurrena

DEBABA Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenako bazkaria

Udal Euskaltegiak 25 urte bete dituela eta,
bazkaria antolatu dugu datorren martxoaren 28an,
Elgoibarko Sigma jatetxean.

Honen bidez, euskaltegiko oraingo eta lehengo
ikasleok animatu nahi zaituztegu
bazkarira etor zaitezten.

Bazkal aurretik eta ondoren,
"Bentazarreko mutiko alaiak" musika-taldea
izango dugu lagun.

- Bazkariaren prezioa: 30 €
- Izena emateko, egin diru-sarrera kontu honetan,
izen-deiturak jarritz:
KUTXA 2101 0036 62 0010222610
 - Izena emateko epea: martxoaren 6a

ZEZEN-BIDE



AUTORAKO B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

Aldapa guztiek dute bukaera

Arratsaldeon irakurle; pasa da urteko lehen hilabetea. Gabonetako ohiko gastuek kontu korronteari emandako astinduari, egungo krisi ekonomikoa gehituz, urtarileko aldapa inoiz baino penditzagoa egingo zitzaion askori. Hori gutxi balitz, lehen aldapa hau bukatu bezain azkar hasi zaigu otsailekoa eta gero martxokoa eta gero... adituek diote aldapa luzea dugula aurretik.

Enpresa eta lantegi askok kontsumoaren jaitsiera dela eta, uste baino gutxiago salduko dute. Ez dituzte orain arte poltsikoan ondo gordeak eduki dituzten bezalako irabaziak lortuko. Hori dela eta, enpresa ugari beren gastuak gutxitze aldera irtenbide erraza aurkitu dute: jendea kaleratzea. Lehenagotik ere aldapa gogorra zena, orain gogorragoa bilakatu da askorentzat.

Badirudi kontsumoan dagoela gakoa. Jendeak ez du kontsumitzen, eta lantegiek ez dute beren produktua saltzen, beraz, jendea soberan dute, eta ondorioz, jendea kalera. Hortaz krisitik irteteko kontsumoa bultzatu behar da? Baina, nola igoko da kontsumoa langileak soldatarik gabe utzita?

Irtenbidea langileei soldata igotzea edo prezioak jaistea da. Orain behintzat gasolinak, etxebizitzek eta kredituen interesek behera egin dute. Aldapak baditu bere tartetxo lauak, antza.

Krisitik irteteko kontsumoa bultzatu behar bada, zer hobe langileei soldata igotzea baino!

Enpresari jaunok, langileei diru gehiago ordainduz, gehiago gastatuko dute eta zuen enpresako produktu gehiago salduko dituzue. Anima zaitzte!

Gaur jaso dut hilabeteko lanaren ordaina. Krisiari aurre egiteko banoa erosketa batzuk egin eta diru piskak xahutzera. Aldapa luzea izan arren, izan behar du bukaera.

Ondo izan irakurle.

Urtzi Alkorta



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Enpresari jaunok, langileei diru gehiago ordainduz, gehiago gastatuko dute, eta gehiago salduko dituzue. Anima zaitzte!"

ASTELEHENEAN SANTA ESKEKO ERRETRATUAK **MEDIATEKAN!**



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



JOSE LUIS BELLOSO

APAIZA

“Lege zibila eta elizako legea bat izatea nahi dute, eta hori ezin da”

Jose Luis Belloso Elgoibarko apaiza izan da urte askoan. Hamahiru urte zituenean erabaki zuen, familiaren laguntzarekin, apaiz izango zela. Euskal Herriko Apaiz Koordinakundeko kide da Belloso: gaur egungo elizarekin kritikoa da apaiz talde hori. Beste eliza eredu batean sinesten dute, eta, horregatik, baztertu egin dituztela dio. Baina elizako aldarean bakarrik ez du jardun: institutuan ere erlijioiko klaseak eman ditu urte askoan. Zaila izan omen da, gaur egun sinesmena duten askorik ez dagoelako, eta ez da harritzen gaur egungo eliza ikusita: “Eskuin muturrekoak dira ia denak, eta gizartearekin oso atzeratuta daude”.

Elkarizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Zenbat urterekin erabaki zenuen apaiz izango zirela?

Hamahiru urte nituenean. Baina ez da erabaki pertsonala izaten, haur bat zarelako. Etxean esaten zuten, eta ez zitzaidan gaizki iruditzen; orduan gehienok eliztarrek ginen, bai guraso eta bai ume. Halaxe, baiezta eman nuen, eta amak ere lagundu zidan. Ikastera joan nintzen, beraz.

Madalako ermitan eman dituzu mezak urte askoan...

Lehendabizi, San Bartolome parrokian eman nituen hogeita hamar bat urte, eta handik Madalara bidali ninduten asmo berezi batekin: gero parrokia izateko. Elgoibar herri luzea da eta parrokiak eragin handirik ez zuela ikusten zuten. Baina gauzak urte gutxitan zeharo aldatu ziren, eta beste eliza bat egiten hastea alperrik zela ikusi zuten. Apaizak ikaragarri gutxitu ziren, eta erabaki zuten bertan behera lagatzea asmoa.

Gaur egun gazteek ez dute apaiz izateko bidea aukeratzen.

Gizartea anitza den bezala, eliza ere anitza da, nahiz eta ezkutatzen saiatu. Egoera asko daude, eta guk talde bat osatu dugu: Euskal Herriko Apaiz Koordinakundea. Oso kritikoa izan da gure kolektiboa, ez beste eliza berri bat egiteko, bestelako eliza bat egiteko baino. Alternatiba bat indartzen egon gara, eta horretan gabiltza oraindik ere. Hilean bilera bat egiten dugu Gipuzkoan, eta hiru hiletik behin Euskal Herriko herrialde guztiok batzen gara. Kritikoak gara, eta kritiko fama hori daukagu. Eta kritikoak izan garenez baztertu egin gaituzte: ez gaude ondo ikusiak. Ez gara beste apaizen etsaiak, baina aukerak anitzak dira. Ebanjelioa erreferentzia moduan galdu egin dela ikusten dugu, eta elizak gauza kulturala bihurtu dira parte batean. Gainera, oso eskuinekoa da eliza ofiziala eta gu ez gaude gustura; ez gaude lasai.

Eliza krisian dago?

Gero eta jende gutxiago joaten da elizara, eta horrela jarraituko du. Eliza mota honetan zein egongo da ba gustura? Daudenak eskuin muturrekoak dira, Opusekoak. Gotzain talde bat dago, gainera, beti gauza berataz ari dena hitz egiten: abortua, dibortzioa eta eskoletako gurutzeak. Abortatuta gutxi batzuk hiltzen dira, baina gosez 30.000 haur hiltzen dira egunean. Proporziorik ez dago

gauza bati eta besteari ematen zaion garrantzian. Baina elizaren arazo bereziena ez da hori: eta gizartearena, gutxiago. Gainera, nola ezarriko diozu gizarteari eredu finko bat? Eliza horretan eskuin muturrekoak direnak bakarrik sartuko dira, baina ezkerrekoak kanpoan geratu dira. Eta horrek ez dauka etorkizunik.

Elizak betetzen ditu gizartearekiko dituen helburuak?

Erabiltzen dituzten gaiak betikoak dira, eta ez dituzte erantzuten gizarteko gaiak. Adibidez behartsuak, gosez hiltzen direnak, gizartean dauden desberdintasunak... zerbait esaten dute horien inguruan, baina desfiguratuta; sakondu gabe.

“Abortatuta gutxi batzuk hiltzen dira, baina gosez 30.000 haur hiltzen dira egunean”

Erlijio maisua ere izan zara, Jose Luis.

Ahal nuena egiten nuen, baina ez da erraza. Askapen teologiaren urratsetatik nabil, eta hori emateko ahaleginak egin nituen, baina jendeak ez zeukan gogorik. Erlijiora joaten ziren etxean esaten zietelako: etxe-koekin ondo egoteko etorri egiten ziren. Baziren banaka batzuk ere lan ona egiten zutenak, baina gehienek paso egiten zuten. Guztira, 25 urte inguru egingo nituen maisu, eta, denbora horretan, ikasleek errealitatea gordina dela erakutsi zidaten. Gazteekin harremanak edukitzea aberasgarria da; gaztetu egiten zaituzte, eta erakutsi ere bai. Euren ikuspegitik, euren bizi izateko era erakusten dute ikasleek. Gaurkotzera behartzen zaituzte: bai hizkuntzan, eta baita irakurketan ere. Gazteen ikuspegira gerturatzeko irakurketak egiten direlako.

Homosexualen arteko ezkontzen aurrean zelan jokatu behar du elizak?

Guk ez daukagu zer esan hor. Gizarteari ezin diogu inposatu horrelako kontuak legez kanpo lagatzea. Legeak gizarte guztirako dira, eta eliza sinesmena daukatenean-

tzat da. Sinesmenik ez dutenei ezin diegu ezer inposatu. Nola inposatuko diozu pertsona bati zeinekin eduki harremanak? Lege zibila eta elizako legea bat izatea nahi dute, eta hori ezin da.

Zein adinekin jubilatzen dira apaizak?

Apaizen jubilatzea 75 urterekin izaten da, baina ni amaren adinagatik eta beharragatik, urte eta erdi lehenago jubilatzen nintzen. 102 urte eta erdierekin hil zitzaidan ama. Hura hobeto zaintzegatik jubilatzen nintzen, arrebarentzako lan gehiegi zelako. Jubilatu aurretik, adibidez, goizaldean deitzen zidan: “Jose Luis, etorri!”. Eta esaten nion, “zer behar duzu ama? Azkar, meza daukat eta”. Eta hark erantzun: “Handia da ba, nik eskatzen dizudanean beti zerbait edukitzea”. Hori ikusita, jubilatzea erabaki nuen. Gainera une latzak eduki zituen: burua ez zuen galdu, baina asaldatuta egoten zen. Azkenerrako itsutu ere egin zen, eta denerako laguntasuna behar zuen.

Gehiengo 65 urte egiteko zain jubilatuta ahal izateko, eta apaizek beste hamar urte itxaron behar...

Eliza denean dago atzeratuta, eta horretan ere bai. Gizartearengandik ikuspegi ezberdina dauka gauza guztietan.

Zaletasun asko dituzu. Jubilatu zarenetik asti gehiago edukiko duzu horiek egiteko...

Orain ezin dut, belaunean mina hartuta nagoelako, baina bai. Lehen, klaseak ematen nituenean, edukitzen nituen egun libreak eskolako jai egunak izaten ziren: San Juan Bosco eta antzeko egunetan. Orduan piri-neoetara-eta joateko aprobetxatzen nuen. Baina denborarekin bakarrik geratzen zara: lagun batzuk sekularizatu ere egin dira, gainera. Gu 40 apaiztu ginen urte batean eta horietatik hamaika atera egin ziren. Orduan galdu egiten dituzu harremanak: ezkondu egiten dira eta beste bide bat jarraitzen dute.

Berriz jaioko bazina, apaiza izango zinateke?

Ez naiz damutzen apaiz izateaz, ezta pentsatu ere. Baina gaur egun beste ikuspegi bat daukat. Orain egiten diren apaiz apurrak, oso eskuindarrak dira, eta ezin izango nuke horiekin bizi. Orain jaioko banintz, beste era batera pentsatuko nuke. Nire pentsaerako lagunak izanez gero, akaso apaiza izango nintzateke, baina zaila da.

SAGARRONDOTIK SAGARDORAKO BIDEA

Gaur egun sagardotegiak moda-modan daude, eta denboraldia hasi orduko sagardotegietan lekua gordetzeari ekiten diete lagun koadrilak eta familiak. Zapatuan sagardotegira jatera joatea ohitura bilakatzen ari da berriro ere, baina sagarraren eta sagardoaren historiak gorabeherak eduki ditu. XVII. mendean hasi zen sagardoaren gainbehera, eta XX. mende bukaeran, Gipuzkoan eta Bizkaian zuhaitz asko egon arren, sagasti asko desagertu ziren. Nola da posible antzinako kultura diren sagardo eta sagarra desagertzea?

Nahiz eta sagardoaren sorrera eta jatorriari buruz datu asko eduki ez, gauza jakina da sagarra eta sagarrondoa aspalditik eza-gutzen direla Euskal Herrian. Sagarra arabiarren bitartez sartu zela askotan entzun izan bada ere, *sagar* hitza bertoko abizenetan asko agertzen da. Elgoibarren ere badaude adibide batzuk: Sagasta, Sagarna eta Oruesagasti, besteak beste. Hori horrela, batzuen ustez, euskaldunek sagardoa egiten erromatarren garaian ikasi zuten.

Euskaldunak bekatariak

Buruko min asko sortu izan ditu sagardoak bere historian zehar. Horren adibide, 1609 urtean gertatutakoa: Bordeleko parlamentutik Pierre de Lancre inkisidorea iritsi zen Euskal Herrira eta ehunka euskaldun kondenatu zituen heriotzara bekatari izateagatik. Bere ustez, euskaldunak pertsona madarikatuak eta bekatariak ziren sagardoa



egiteagatik. Izan ere, Adan galbidean jarri zuena sagarra izan zen, eta inkisidorearen iritziz, sagarra bekatuaren parekoa zen. Sagardoa sagarretik ateratzen zenez, eta euskaldunek sortzen zutenez, bekatari hutsak ziren.

Pixkanaka, sagardoaren kultura galtzen joan zen, eta faktore askok eduki zuten eragina. Ardoa sagardoak baino indar gehiago ematen zuela eta lan gogorra egiten zutenentzat aproposagoa zela hedatzen hasi zen baserriarren artean, eta sagardoa baztertu egin zuten. Araba, Lapurdi eta Nafarroan lehengo sagastiak artasoro, galsoro eta mahasti bihurtu ziren pixkanaka.

Gainera, ardoarekin etekin handiagoa ateratzen zuten elkartrukean. Azkenerako, sagardoa neurri txikitari produzitzen zuten, baserrietako kontsumorako soilik.

GURUTZETA
SAGARDOTEGIA

Oialume Bidea, 63
Astigarraga
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 552 242

LARRARTE SAGARDOTEGIA
Astigarraga
(Gipuzkoa)

- Bertan egindako sagardoa
- Bertan zuzeneko salmenta sagardotegian

LARRARTE
sagardotegia

Muñagorri Enesa Baserria
20115 ASTIGARRAGA
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 555 647
679 123 892



Pixkanaka, baina hobetzen

Gipuzkoa izan da lege zaharreko sagarrondoa landatze eta sagardoa egitearen ohiturari eutsi dion herrialde bakarra. XX. mende hasieran urteko 30 milioi litro sagardo egiten zituzten; 1967. urtean berriz, 1.250.000 litro baino ez. Hala ere, produkzioa igotzen hasi da pixkanaka, eta 1998 urtean Gipuzkoako produkzioa zortzi milioi litrokoa zen.

Gaur egun sagardotegiak gorakadan daude, eta sagardoaren kontsumoa ere igo egin da. 80ko hamarkadatik sagardotegiak modan jarri dira Gipuzkoan. Gainera, hainbat baserritan sagardoa euren ekonomiarako osagai garrantzitsua bihurtu da. Zoritxarrez, antzinako sagastiak desagertu egin dira, eta sagardoa egiteko kanpotik, hau da, Asturias, Galizia eta Frantziatik ekarri behar izaten dituzte sagarrak.



SAGARDOAREN URREZKO SEI ARAU:

- Gutxi eta sarri. Sagardoa bota ahala edatea komeni da.
- Edalontzia, aukeran, hobe beira finekoa, gardena, ahozabala eta luzea izatea.
- Sagardoaren ama, ez da txarra. Materia naturalak dira eta sagardoaren kalitatean ez dauka inolako eraginik.
- Sagardoak ez ditu barrenak nahasten, edari naturala delako. Baina kupeletik zuzenean edo erabat egin gabeko sagardoa edanez gero, pertsona batzuei nahastura sortzen zaie.
- Sagardoa edozein janarirekin edateko da ona.
- Sagardoa osasungarria da edari naturala delako. Hala ere, edariaz egiten den erabilera txarra izan daiteke.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Torturak badirau!!!

Otsailaren 13an, 28 urte beteko dira Joxe Arregi zizurkildarra Madrileko polizia-etxe batean jasandako torturen ondorioz hil zenetik. Gertaera latz haien ondorioz, Torturaren Aurkako Eguna bilakatu da gure herrian otsailaren 13a.

Azken 40 urteetan, 7.000 euskal herritar baino gehiago izan dira basakeria hori sufritu dutenak. Hain urrutira joan gabe, 2008an bertan, 62 euskal herritar izan ziren torturatuak guardia zibil eta espaniar poliziaren eskuetan.

Tortura bitarteko sistematiko gisa erabilia da, informazio politikoa eta atxilotuen autoinkulpazioa lortzeko. Horren adibide garbia da atzean utzi berri dugun urtea. 2008ko lehen egunetan Igor Porturen eta Mattin Sarasolaren atxilotetaren ondotik etorri zen erreakzio gehien. Igor Portu Donostiako Ospitalean ingresatua egon zen gorputzean kolpe ugari jaso eta hautsitako saihesten batek birika zulatu eta gero. Urtea bukatzeko, Arkaitz Landaberearen ospitalizazioa izan genuen hizpide, eta tartean beste lau atxilotu izan ziren ospitalizatuak tortura zantzu argiekin. Kasu horien inguruan eragile asko mintzatu ziren...

Tamalez, ordea, 2010eko otsailaren 13a ere, Torturaren Aurkako Eguna izaten jarraituko du. 28 urte eta gero, Joxe Arregik bezala, euskal herritarrek polizien eskuetan inkomunikatuak dauden bitartean tratatu txarrak jasatea eragozteko adina borondate politikorik ez baitago.

Gure aldetik, data horietan gogoan izan nahi ditugu Euskal Herrian torturatuak

izan diren herritarrek, bereziki torturak hil dituenak, eta dei egiten dugu otsailaren 13an, Elgoibarren, torturaren aurka burutuko den manifestazioan parte hartzea.

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua ☺

Salbuespen egoerari stop! Demokrazia 3 milioi

Dagoeneko hauteskunde kanpainak gaude eta aurrean ere, hasieratik, Madriletik iragarri digute ate guztiak itxita ditugula, ezker abertzalearen oinarri soziala etsipenera eramateko asmoz.

Legez kanporatze estrategia sortu zenetik hainbatetan abiatu dira hauteskunde kanpainak hautes-elkarteak sortzeko sinadura bilketarekin. Eta aurreko guztietan bezala, azken erronka honetan ere, minimo legalak erraz gainditzeko gaitasuna erakutsi dugu. Oztupo guztien gainetik, egun hauetan herriz herri bildutako ia 50.000 sinadurak zoriontzeko moduko emaitza dira. Sinadura horiek guztiek agerian uzten dute milaka garelako herri honek behar duen eszenatoki demokratiko bat eskuratu nahi dugunak; proiektu politiko guztiak aukera berdintasunean defendatzeko eta lantzeko eskubidea aldarrikatzen dugunak.

Orain, jasotako sinadurak biderkatu eta boto bilakatu behar ditugu. Gure aldeko bozka baliogabea denaren sentsazioa zabalduko dute batzuek. Horien aurrean, argi adierazi behar dugu baliogabea den bozka bakarria beraien

aldekoa dela; eurek jasotako bozka guztiak ezer alda ez dadin erabiliko dituztelako. Orain arte bezala, Espainiaren kailan bizitzen jarraitzeko.

Benetako aldaketa politikoa lortzeko, ezinbestekoa den eta, horrexegatik suntsitu nahi duten motorra indartzeko balio du gure botoak. PSOEek eta EAJK helburu duten iruzurra galarazi eta sakoneko aldaketa politikoa saihestezin bilakatzeko, aldaketaren aldeko ahalik eta boz eta indar gehien metatzea behar du izan; ondorenean, Euskal Herria marko demokratiko batera eramango duen prozesu demokratikoa urratu ahal izateko. Horiek dira Ezker Abertzalearen iparra eta zeregin nagusiak, eta horiei eutsiko diegu inolako zalantzarik gabe.

Jasotako azken erasoei aurre egitera eta hauteskunde egunean sakoneko aldaketa politikoaren aldeko milaka eta milaka bozka zenbatzera goaz. Gau, ostirala, arratsaldeko 19:30ean manifestazioa egingo da Plazatik salbuespen egoera salatuz. 14an manifestazio nazionala dugu.

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA: Ainhoa Andonegi. KAZETARIAK: Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña. PUBLIZITATEA: Leire Rubio, Eneritz Lazkano. MAKETATZAILA: Zalao Arnaiz. MAKETAREN DISEINUA: Jaione Unanue. KOLABORATZAILAK: Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA: Gertu Koop. E. TIRADA: 4.750 ale. LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92. ISSN: 1139-1855



**Arkaitz
Irureta**

Biko-
tez aldatu
eta aurkez-
penak egiteko
unea izan arren,
hik ez duk ez aur-
kezpen askorik be-
har, Justo!

Hire kemen eta konpromiso

maila beti mirestu izan dizkiat, eta orain tartetxo hau urtebe-
tez hirekin partekatzea ohorea duk.

Gaszteontzat lokal baten eske elkar ezagutu genian. Handik irten
zitan Muskurutxu babesteko taldeak, antenaren kontra lehenik, Iber-
drolaren eolikoen kontra hurrengo. Errekak garbitzen ere garai haietan
hasi gintuan, zer oroitzen!

Han ikasi nizkian kapitalismoaren ondorioak, Banku Mundiala, Na-
zioarteko Diru Funtza, zor ekologikoa, antimilitaristak, intsumisoak,
litoizko urtegia eta solidarioak... ezker mugimendua hitz batean.

Debalde lana egin eta behar duenari emateak betetzen naiz garai
hartatik, hartzeak baino gehiago, zalantzarik gabe! Eta ordutik, hire
moduko maisuekin zorretan nagok.

“Hik ez duk aurkezpen askorik behar, Justo”

Lurra berreskuratu nahian, obretara inkurtsio baketsu bat egitera
joan zinen. Eta Julio denen aurrean basatiki jipoitzen zutenean, la-
guntzera joateko ausardia edukitzea hi atxilotzeko arrazoia. Oraindik
fin segitzen duk!

Segituan, 93ko torturatzaleekin berriz ere topo egin duala etorri zi-
tzaidan burura.

Palestinaren antza hartu omen zian Urbinak. Testigurik nahi ez, eta
prentsa bidali ondoren nonnahitik irtetzen omen zituan kolpeak, pelo-
takadak, identifikazioak, anbulantziatik zaurituak atxilotu, nagusi nahiz
ume beldurturik antxixiketan... Negozio Batuen Erakundeak hau ere
onartuko al dik?



**Justo
Arriola**



BARRENen exhibizionismua egitiari baietz
esan nionian, isil antzian hastia zuan nere asmuu,
baiña aldrebes urten jatak. Bistan dok ez zuala
denborarik galdu kale-unibertsitate garaian. Hori oroi-
mena! Hire aurkezpenak gorritu arazi najok. Hurren-
guan berorika egidak, dizipulu saiatu horrek!

Palestinako sarraskixaren neurrigabetasunaz aparte, Urbina-
kuak bajok antzekotasunik: han palestinarrek etxian egindako suziri-
xak jarabixek aitzakixatzat, hemen poliziaren erasuari aurre egin zuten
lau harrizak izan dituk jipoien zuribide.

“Isil antzian hasi nahi najuan, baiña aldrebes urten jatak”

Alderik ere bai, Gazan prentsiari sartzia debekatu jauen, eta Urbi-
nan, berriz, hantxe egonda, ez juek ixa txistik ere esan.

Ez jakixat Ban Ki-moon zeozertaz jabetu zuan, baiña hemengo
biolentzia gaitzesle profesionalak, behintzat, illargira begira jauzen.
Beste behin.

Jakiñian egongo haiz Israelgo Mossad-eko gaizkilliak Ertzaintza-
ren hezitzaillak izan zirala. Ezetz topatu gizalegia eta begirunia euren
ikasgaixetan.

Gasteizko “barnetegiko” zaintzaillien eskuetan igarotako ordu lu-
zietan konturatu nok, 93an Eibarren lege, euskeriak ez jaukala esti-
mazio haundirik. Komuna zer dan ere ez, hi.

Argazki argigarria atera najuan: zazpi euskaldun eta kataluniar
bat ziegetan, eta burdiñezko atiaren beste aldiari espainiolez egiten
juen kaputxadunak. Eta hau ez zuan Alkala-Meko, Lakua baiño, “pix-
kat es mucho”-ko politikuen etxe albu. Zenbat urte jaruez hauek “ni
pizca” egitten?



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Langabezia %50 igo da Elgoibarren 2008an, eta urte amaieran 428 langabetu zeuden.

Langabeziaren gorakadak eragin dizu?



Lorena Padilla
27 urte, langabetua

Bai, langabezian nago. Orain dela bost urte iritsi nintzen Elgoibarrera, eta beti izan dut lana, orain arte. Haurdun geratu nintzen, umea jaio da eta lanik gabe nago. Bi ume ditut, eta senarrak bakarrik egiten du lan. Kezkatuta nago, baina egoerak hobera egitea espero dut.



Gorka De Prado
31 urte, langabetua

Bai, hiru hilabete daramatzat langabezian, eta egoera nola dagoen ikusita, kezkatuta nago. Gure enpresan aldi baterako langile guztiak bidali dituzte kalera, eta tartean ni neu. Fijo sartzeko atarian, kalean geratu naiz, eta lan berria bilatzeko aukera oso gutxi dago.



Irene Barruetaña
47 urte, garbiketa arduraduna

Niri zuzenean ez, oraindik badaukat lana, baina nire senarraren enpresa datorren hilabetean erregulazioan sartuko da, irailera arte, printzipioz. Nire ustez txarrena da, hortik aurrera zer gertatuko den inork ez dakiela, eta egoera ez dago batere ondo.



Mertxe Pagoaga
54 urte, etxekoandrea

Ez, baina edonor geratu daiteke lanik gabe, eta beldur hori hor dago. Medioetan entzuten dena gehiegizkoa da. Egia izango da, baina gizartea beldurtuta bizitzea nahi dutela dirudi. Momentuz behintzat, gu ez gaude gaizki, eta espero dut horrela segitzea.

ESKERTZA

MARGARITA OLAÑETA AREITIOAURTENA



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barreanean
eramango zaitugu betiko*

2009ko urtarilaren 25ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Pista beltza oso egoera txarrean dago: "San Roke auzoko pista beltza oso egoera kaskarrean dago. Asfalto zuloz beteta dago, eta beheko garajeetara ura sartzen da. Gainera, herrian aparkatzeko leku arazoa dela-eta, jende askok pista beltzean aparkatzen du, eta ez da maniobrak egiteko lekurik egoten. Garajetik autoa ateratzeko zailtasun handiak izaten ditut, eta bi automobil elkargurutzatzeko ez dago lekurik. Udalari eskatu nahi nioke asfalto konpontzeko, eta pista beltzean aparkatzea debekatzeko."



Sigmako haur parkea egoera oso txarrean dago: "Sigma auzoa erabat ahaztuta dauka Udalak, eta horren adibide garbia da haur parkea. Oso egoera txarrean dago, eta umeekin joateko ez da batere aproposa. Bertara iristeko eskailera mordoa pasatu behar dira, eta umeen kotxearekin joatea ezinezkoa da. Gainera, hezetasun handia dago, eta euria egiten duenean sekulako putzuak sortzen dira. Eskailera mekanikoak jarri behar dizkigutela entzun dugu, eta horrekin batera haur parkea egokitzea eskertuko genuke".



Musikeneko saxofoi taldearen kontzertua oso ondo egon zen: "Joan zen zapatuan Musikeneko saxofoi taldeak kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian, eta bikaina izan zen. Elgoibartar bat tartean ikusteak izugarri poztu ninduen, gainera. Jende gaztea eta musikari onak ikusi nituen taula gainean, eta izugarri gozatu nuen".

Argazkia: Aitor



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12



ESKERTZA

JOSE IRIONDO JUARISTI

*Zure oroimenak
indartzen gaitu.*

2009ko urtarilaren 26an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




Alberto Ortueta IMHko eta Erreminta Makinaren Museoko sortzailea hil da

Otsailaren 4an hil zen Donostian, 68 urte zituela

Erreminta makinak azken hamarkadetan izan duen eragile eta bultzatzaile nagusienetakoa bat galdu du, Alberto Ortueta heriotzarekin. Elgoibartarra otsailaren 4an hil zen Donostian, 68 urte zituela. IMHko eta Makina Erremintaren Museoko presidentea, eta 33 urtez AFMko (Erreminta-Makina fabrikatzaileen elkarte) zuzendari orokorra izan zen. Sektoreari bultzada handia eman zion Ortuetak, eta Euskal Herrian eginiko erreminta makinek gaur egun nazioartean duten esparruan kokatzen lagundu zuen. Horrez gain, produkzio eta esportazio zifrak inoizko goreneraino ailegatu ziren bere zuzendaritzapean. 2006an laga zuen kargua, eta Xabier, bere semea-ri pasatu zion lekukoa.

Erreminta makinari lotutako bizitza

1940ko irailaren 18an jaio zen Alberto Ortueta Elgoibarren. Ekonomi eta enpresa-zientzia ikasketak burutu zituen Deustuko Unibertsitatean eta 1962an li-



zentiatu zen. Segituan hasi zen lanean, 22 urte besterik ez zituela, Elgoibarko Construcciones Mecanicas Alkartu enpresako zuzendari kudeatzaile izendatu zuten. Beranduago Acme Taldea sortu zuten, geroago etorriko ziren beste enpresa batzuen aurrekaria, tartean Danobat. T. Izarra eta Estampaciones Rubi enpresetako zuzendari kudeatzaile ere

izan zen Ortueta, AFMko zuzendari izatera ailegatu aurretik. 2004an Joxe Mari Kortasaria jaso zuen. Azken agerraldi publikoa IMHko museoaren 10. urteurreneko ospakizunean egin zuen, abenduaren 18an, eta bertan erreminta makinaren iraganaz eta etorkizunaz berba egin zuen.

Alberto Ortueta bideoa ikusteko:

www.elgoibarren.net

Kandelaria eta San Blas egunak ospatu dituzte aste honetan



Kandelaria eguna, astelehenean



San Blas eguna, martitzenean

Kandelaria eguna izan zen astelehenean, otsailaren 2an, eta eliztiarrek kandelen bedeinkazioa, meza eta prozesioa egin zituzten. Hurrengo egunean, martitzenean, San Blas eguna izan zen, eta herritar mordoa joan zen elizara opilak bedeinkatzera. Goizean goiz Madalako elizan egin ziren bedeinkapenak eta ondoren, Parrokian. Anis usaina nagusitu zen, eta elizak txiki geratu ziren. San Blas opilak eta eztarriko lokarriak bedeinkatzeko tradizioak indar handia dauka oraindik Elgoibarren.

Lekua **Santa Ana kalea**



Santa Ana kaleko obrak bide onetik doaz. Ingurune hori oinezkoentzat egokituko du Udalak, San Inazio eta Antonio Arrillaga kaleekin batera. Ingurune hori guztia eraberritzeko 900.000 euroko aurrekontua dauka Udalak, eta Eusko Jaurlaritzako Merkagune programaren baitan burutuko dute. Herriko merkataritza indartzeko proiektuaren barnean, oinezkoentzako erraztasunak jartzea da Udalaren helburua.

Zenbakia **353**

Demokrazia 3.000.000 plataformak 353 sinadura bildu ditu Elgoibarren. 305 lagunek udaletxean sinatu dute, eta 48 herritarrek Notaritzan. Martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartzeko 18.000 sinadura inguru behar zituen taldeak, eta 47.337 lortu dituzte. Elgoibarko Ezker Abertzaleko ordezkariak esandakoaren arabera, zenbakiak oso onak izan dira, eta zoriontzeko moduko emaitza da: "Sinadura horiek guztiek agerian uzten dute milaka eta milaka garelako, eta herritar horien babesarekin aurrera jarraituko dugu".

Irudia **Ikasleak greba eskubidearen alde**

Mekanikako ikasleak mobilizazioak egiten ari dira, greba eskubidearen alde. Batetik, ikastetxe barnean informazio kanpainak jarri dituzte martxan, eta bestalde, manifestazioa egin zuten otsailaren 3an, euren greba eskubidea aldarrikatzeko. Mekanikako ikasleek esandakoaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzak greba egiteko oztopo handiak jartzen dizkiete, eta borroka luzea izango dela jakinarazi dute.



Gurasoen formaziorako jardunaldiak

Herri Eskolako eta Elgoibar BH institutuko Gurasoen Elkarteei jardunaldi pedagogikoak antolatu dituzte, kezkatzen dituzten gaiez jarduteko. Helburua seme-alaben heziketan lagunduko duten hainbat aholku eta jarraibide jasotzea da. Datorren eguaztenean, hilak 11, konpetentzien garapenean oinarritutako ikaskuntzaren gainean ariko dira. Konpetentzia zer den, horren ebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoak berba egingo dute, besteak beste. Hizlaria Maite Perez izango da, hezkuntza aholkularia.

Asis Sareari buruzko hiltzaldia hilaren 12an

Jesus Artola frantziskotarrak Asis Sareari buruzko hitzaldia eskainiko du datorren egunean, hilak 12, Santa Klarako komentuan. Eguneroko bizimoduan, frantziskotarren izpiritualtasuna ezagutu, partekatu eta bultzatu nahi duten laikoaren sarea da, Asis Sarea. Parte hartu nahi dutenek 646 214 896 telefonoan, edota, asisarea@arantzazu.org helbidean eman dezakete izena.

Kuadrillategiko zozketa

San Anton egunerako ateratako errifan zozketa egin dute Kuadrillategikoek, eta agertu dira irabazleak. 253 zenbakiarekin, Ibai Ondo erretegiaren afaria irabazi du Karmen Azkuek, eta 103 zenbakiarekin, Arrate Zubiaurrek Gorbea jatetxerako afaria eskuratu du.

San Bartolome jaiak

Udala hasi da 2009ko San Bartolomeak prestatzen, eta jaietarako proposamenak egiteko epea ireki du. Interesa duten herritarrek Kultura Zerbitzura jo dezakete, martxoaren 6a baino lehen. Informazio gehiago 943 742 158 edo kultura@elgoibar.org helbidean.

Bizikidetza

Inmigrazio plana uda osterako prest izatea espero du Debegesak

Urrutiko herrialdeetatik gero eta jende gehiago dator Euskal Herrira azken urteotan lan bila, bizimodu hobe baten esperoan. Elgoibarren, etorkin kopuruak %9,5 egin du gora 2000tik 2008ra. Bertako jendeak eta erakundeek etorkinez ezer gutxi dakitenez, hainbat zalantza, galdera eta arazo sortzen dira. Debegesa garapen agentziak 2007-08an Debabarreneko etorkinen egoera aztertu ondoren, ekintza plana gauzatu nahi du orain. Horretarako hainbat sektoretan diharduten teknikari eta eragilerekin biltzen hasi berria da. Inmigrazio plana uda osterako martxan egotea espero du Debegesak, eta gero Udaletara eroango dute han onartu dezaten.



Elgoibarko Izarrak antolatutako Euskara Errefortzuetan ateratako argazkia.

Debabarrenean etorkinentzako ekintza plana uda osterako amaituta egotea espero du Debegesa garapen agentziak. Izan ere, egunotan, gizarte eragileekin biltzeari ekin dio, ekintza plan hori gauzatu ahal izateko. Plangintzak bizikidetza, gozamena eta herritarren arteko harremanak sustatu nahi ditu.

Ekintza plana eskualdeko sei herritan lan-tzen dihardu Debegesak: Elgoibarren, Mutrikun, Deban, Mendaron, Soraluzen eta Mallabian. Eibarko eta Ermuko udalek plangintza propioa dutenez, herri bi horiek ez dira prozesuan sartuko, baina eurekin loturak bilatu nahi dituzte.

Lau lan-talde osatu ditu Debegesak, eta egunotan ekin die bilerei, eragile publiko zein pribatuekin. Lehenengo lan-taldean, ongizatea, berdintasuna, gazteria eta padioiko udal teknikariek parte hartzen dute. Bigarreanean, euskara, kultura eta kirol arlo-etako teknikariak daude, udaltzainekin batera. Hirugarrenak ikastetxeak biltzen ditu. Laugarrenean, azkenik, gizarte eragileak daude.

Diagnostikoa

Horren guztiaren aurretik, inmigrazioari buruzko diagnostikoa egin zuen Debegesak 2007-2008an: arlo sozialeko gaiak aztertu, eta inmigranteen ikuspuntua jaso zuen. "Inmigrazioaren portzentaia igo egin da azken urteotan, eta ez dakigu zein den", azaldu du Itziar Elustondok. Debegesako teknikariaren



Inmigrazioak %9,5 egin du gora zazpi urtean



Etorkin kopuruak nabarmen egin du gora, batez be Elgoibarren. izan ere, Debarreneneko beste herrietan baino gehiago hazi da inmigrazioa. Debegesak egindako azterketaren arabera, 2000tik 2008ra %9,5 hazi da etorkinen kopurua.

Nazionalitate espainiarra ez duten 542 lagun daude Elgoibarren erroldatuta (2008). 2000. urtean, berriaz, erroldatutakoak 57 ziren.

24 urtetik beherakoa da etorkinen %30. 26tik 59 urtera bitarteko etorkinak, osteraz, %69 dira.

Etorkin talderik zabalena boliviarrak da (138 lagun) Elgoibarren. Iaz 93 portugaldar zeuden erroldatuta, 63 marokoar eta 36 kolonbiar.

Etxebizitza da etorkinentzako oztopo handienetakoa bat. Garesti izateaz gain, aurreiritziak direla eta, jabe batzuek ez diete errentan eman nahi izaten.

Beste herrialde eta kulturetatik datozenek, tramiteak egiteko galduta ibiltzen dira sarri. Udaletxeetan eta ez dute ulertzen zer eskatzen dieten eta nora joan behar duten. Askotan ez dakite zer tramite egin erroldatzeko, negozio bat irekitzeko edo obra bat egiteko.



Martitzenean Elgoibarren egindako bileraren argazkia.

iritziz, “zentzu zabalean zer den ez dakigu, ez dakigu nola lagundu, ez zer behar dauzkaten”. Era berean, gizartean aurreiritzi asko izaten dira inmigrazioari buruz. “Horren guztiaren atzean zer zegoen jakin nahi genuen”, argitu du Elustondok.

Diagnostikoak ondorio argigarriak eskaini zituela azaldu du teknikariak. “Askotan pentsatu dezakegu han pobrezian bizi direla, baina lana izaten dute, askok ikasketak, eta bizitza hobea nahi dutelako etortzen dira”, esan du.

Etorkin mordoa enprendedoreak direla ere ondorioztatu dute. Elustondoren arabera, “Gizarte Segurantzako datuei begiratuta, autonomo pila bat sortu dira. Lan egiteko era hori bada, egingo dute. Mobiltzen dira”.

Hezkuntza arloa ez da arazoa etorkinentzako. Izan ere, ume gehienak eskolaratzen

dituzte. Arazoa, egotekotan, umeak euskalduntzearekin egon liteke.

Landu beharreko arloak

Diagnosia egin ondoren ekin dio Debegesak ekintza plana prestatzeari. Ekintza planean landu beharreko arloak euskara, etxebizitza eta udaletxeetako harrera guneak izatea espero du Debegesak. Horrez gain, udal barruko elkarlana eta udalek gai honen inguruan beste erakundeekin dituzten harremanak hobera egin beharko dute ekintza planarekin. Formakuntza eta enplegua ere landu litezke ekintza planean.

Eragileekin bileren saioa amaitu ondoren, etorkinekin bilduko da Debegesa. Ekintza plana uda ostean prest egotea espero dute, eta udal plenoetara eroango dute, han onartu dezaten.

2007/08an etorkinei buruzko diagnostikoa egin zuten eta orain ekintza plana gauzatu nahi dute

Gure berbak

Aditza (40): Aditz trinkuak: EUKI aditza

Hauek dira EUKI aditzaren iraganeko forma arruntak:

- ♦ Neutra: *naukan, zaukan, geunkan, zeunkan, zeunkan, zauken.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najaukan, haukan, jaukan, geunkan, jauken.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najaukanan, haukan, jaukanan, geunkanan, jaukenen.*

Objektua pluralekoa danielan, -Z pluralgillia erabiltzen da aditz honetan ere:

- ♦ Neutra: *naukazen, zaukazen, geunkazen, zeunkazen, zeunkazuezen, zaukezen.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najaukazen, haukazen, jaukazen, geunkazen, jaukezen.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najaukananzen, haukazen, jaukananzen, geunkananzen, jaukenezen.*

Aditzian, gaztien artian, fenomeno arrunt bat gertatzen da: analogiaz, hizkuntzaren ekonomia esaten jakon fenomeno baten eraginez, aditz forma berriak sortzen dira, aditzaren sistemian errezteko; EUKI aditzari dagokionez, guk daukagu egiten dogu orainaldixan, eta guk zukagun egiten da iraganaldixan. Hau da, orainaldiko aditza hartu, eta iraganari dagokixozen formak aldatu: horrela sortu dira guk zaukagun, zuk zaukazun bezelako formak.

Horren orde, egokixaguak dira gure aittitta-amamak eta gurasuak erabiltzen dituen geunkan, zeunkan bezelako formak

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1980

Aste honetako erretratua Garbiñe Uriguenek laga digu. Ez dakigu seguru zein urtetakoa den, baina 1980 urte ingurukoa izan daitekeela esan digute. San Roken aterata dago argazkia. Ordu hartan ere, soinu-jole eta guzti ateratzen ziren Santa Eskean. Aste honetan Santa Ageda eguna izan denez, egokia iruditu zaigu argazki hau kaleratzea.

Urtero bezala, bihar aterako dira kalez kale Etxegiña taldekoak, eta Santa Agedaren omenez, Caritas elkartearentzat egingo dute diru bilketa. Erretratuan azaltzen diren guztien izenak jakiterik ez dugu izan, baina seguru norberak bere burua ezagutuko duela.



ESKERTZA

ANTONIA GABILONDO UNZUETA

2009ko otsailaren 3an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elgoibarren lagun mordoa aurkitu zituzten Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek

Aurreko domekan 'Piratak' ikuskizuna eskaini zuten



Eskerrak Elgoibarko neska-mutilei: euren babesa jaso zuten Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek aurreko domekako saio bietan, Kiroldegian. Zailtasun askori aurre egin behar izan zieten hiru pailazoez, pirata bihurtuta. Eskerrak Elgoibarko neska-mutilak hantzeuden, arazoak gainditzen laguntzeko prest.

Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Ume ugari jarraitu zuten Piratak ikuskizuna.



Beste batzuk bezala, pailazo ezagunak lehen aldiz ikusi zituen Nora Pedrosak. "Pirritx eta Porrotx eta Mari Motots 'Klinikan' gustatzen zait gehien. Eta gaur ondo pasatzera etorri naiz", adierazi du. Txalo asko egin zuen.



Porrotx, Mari Motots eta Pirritxek hainbat zailtasuni aurre egin behar izan zieten.

Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri aritu ziren klopa kantari Santa Ageda bezperan

*Pozgarria ta bedeinkatua
Santa Agedaren eguna,
gure taldean aspalditikan
estimatua duguna.*



*Aterik ate pozez kantari
aterik ate babesa,
pena bakarra: nahi izan arren
denera iritsi eza.*



*Urtero lege usadioa
kantari nahi dugu bete,
eta horrela segiko dugu
estimatzen duten arte.*



*Triki, pandero, kopla ta koro
denak ahaleginduz berdin,
hurrengo urtean ondo bagera
bilduko gera zuekin.*

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

Etxegiña taldekoak bihar, zapatua, aterako dira herriko kaleak alaitzera

Bihar Etxegiña taldekoak 9:00etan bolatokian elkartuko dira bi taldetan banatzeko. Herri guztian zehar ibiliko dira koplari bi taldeak, eta beranduago, La Union elkartearen elkartuko dira haiketako egin, eta bi taldeek elkarrekin ibilbidea jarraitzeko. Errosario kalean amaituko dute ibilbidea, 14:00ak aldera, Ama Birjiñaren aurrean salbea abestuz. Gero, bazkaria egingo dute Baltasar elkartearen. Urtero bezala, batu-ko duten dirua Caritasentzat izango da.



Miskiren aldeko kontzertua eskainiko dute Expresion Sonorak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak

Otsailaren 27an izango da, 22:15ean hasita, Herriko Antzokian

Eguraldi txarra, krisia... Gemma Agirregomezkortak nahi baino errifa gutxiago saldu izanaren arrazoietakoz batzuk dira. Ez, ordea, Peruko ume behartsuak laguntzen jarraitzeko nahikoa oztopo. Expresion Sonora musika taldeak eta Haritz EDTk Miski Gobernu Kanpoko Erakundeak lagundu nahi izan dute dakitena eginez, eta Miskiren aldeko kontzertua antolatu dute. Otsailaren 27an izango da Herriko Antzokian, 22:15ean hasita. Sarreak zazpi euro balio ditu, eta Pitxintxun eta Goiaran eros daitezke; eta Gemmak berak ere salduko ditu kalean.

600 haurrentzako laguntza

Martxoaren 1ean joango da Gemma Agirregomezkorta Cuscora (Peru). Hegoamerikako herrialdera egingo duen hamargarren bidaia izango da eta bi hilabete emango ditu han. Aurreko urteetan baino laguntza gutxiago jaso du aurtengoan Gemmak, nahiz eta beharra lehenagoa edo handiagoa izan, eta noski, ez die Peruko umeei huts egin nahi.

Gauzak horrela, zerbait egin behar zutela pentsatu zuten Miskikoek eta kontzertu berezi bat antolatzea bururatu zitzaion. Expresion Sonora eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideei ideia oso ona iruditu zitzaion eta daukaten dena emateko prest daude otsailaren 27an eskainiko duten Miskiren aldeko kontzertuan. Ia bi orduko ikuskizuna egingo dute Herriko Antzokian, Haritzek gutxitan zapaldu duen eszenatokian. Kontzertuan batutakoa eta Miskik aurrez batu duen dirulaguntzaren onurak Peruko 600 haurrek igarriko dituzte.



Herriko hiru ikastetxeak santa eskean atera dira



Ikastola



Pilar ikastetxea



Herri Eskola

Elgoibarko hiru ikastetxeak eguaztenean, Santa Ageda bezperan, santa eskea egin zuten. Herri Eskolakoak izan ziren lehenak. Goizeko eguraldi ona lagun, patioan aritu ziren koplari. Ikastolakoek kalejira egin zuten arratsaldean, eta King-Kong azpian geratu ziren euri zaparrada hasi zelako. Pilar Ikastetxeakoak, ostera, ikastetxeko aretoan aritu ziren kantuan.

Mendi eskiko Altitoy proba jokatu dute joan den asteburuan Frantzian hamabost elgoibatarrek

Bi eguneko proba izan behar zena, egun bakarrean jokatu zuten

Joan den asteburuan, urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean Euskadiko koparako puntuagarria den open Altitoy mendi eskiko proba jokatu zen Luz Saint-Sauveur inguruetan. Hasiera batean asteburu osoko mendi eskiko jai handi eta ikusgarria izan behar zena erdira murriztu zen astean zehar izandako gertaerengatik. Izan ere, elur-jauzi baten ondorioz mendi sorospen taldeko gendarme bat (CRS) hil zen. Hori dela eta, prefetak ez zuen eman proba osotasunean jokatzeko baimena, eta azken une-ra arte bertan behera gelditzeko arriskua egon zen.

Baina antolakuntzak egindako ahalegina eta lanaren ondorioz, zapatuan prestatutako mendi ibilbide bat burutu zuten; eta domekan benetako festa bizi izan zuten Bareges inguruan.

Bi ibilbide aukeran

Lasterketa horietan ohikoa den moduan, luzerari dagokionez bi ibilbide egon ziren. Baina zailtasunari dagokionez bi ibilbideak alpinoak eta ikusgarriak



egiten ahalegintzen dira. Ibilbide luzeena, A delakoa, konpetitiboa izaten da. Estatu eta Andorrako eskiatzaile onenek hartu zuten parte bertan. B ibilbidea, ostera, ibilbide herrikoa da eta giro aparta bizi izan zen partehartzaileen artean. Esan beharra dago Pirinioetan antolatzen diren eski frogetatik arrakastatsuek dela, 550 partehartzailek izena eman zuten-eta.

Tartean hamabost bat elgoibatarrek parte hartu zuten, Elgoibarren kirol ikusgarri honek duen arrakastaren erakusgai. Horiek animatzera beste hurrenbeste herritar joan ziren Frantziara. Azkenean proba domekan bakarrik egin bazuten ere, antolakuntzaren lan onak, eguraldi apartak eta giro ezin hobek asebetea utzi zituen elgoibartar guztiak.

I. URTEURRENA

RAMONA SOLOLUCE PAGUEGUI



2008ko otsailaren 7an hil zen, 75 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

GREGORIA GOROSTIDI UNCETABARRENECHEA



Roman Ecenarro Osororen alarguna

2008ko otsailaren 2an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Euskadiko eskubaloitxapelketako bigarren fasean jokatu du IMHk

Cometel taldeak zazpigarren postua lortu du



Eskubaloiko Euskadiko Txapelketako lehenengo fasea joan den aste-buruan amaitu zen, eta bertan jokatzen aritu dira Elgoibarko bi talde: IMH (kadete neskek) eta Cometel(neska jubenilak). Lan oso ona egin dute bi taldeek: alde batetik, IMH kadete neskek lehenengo postuan bukatu dute txapeketa, eta bigarren faserako txartela lortu dute. Gainera, lehenengo fase ezin hobea egin dute Elgoibarko neskek: Berdinketa lortu zuten partida bat izan ezik,

jokatutako 14 partidak irabazi dituzte. Gainera, gol gehien sartu dituen taldea izan da, 417 tanturekin. Hortaz, Euskadiko Txapelketaren finalera iristeko aukera handiak dituzte

Cometel zazpigarren

Cometeleko neskek ere lan ona egin dute Euskadi mailan, eta zazpigarren postuan geratu dira. Bigarren faserako txartela lortu ez dutenez, Gipuzkoa mailan hartuko dute parte.

Kirol Patronatuko dirulaguntzak lortzeko dokumentuak hilaren 28rako eman behar dira

Elgoibarko Kirol Patronatuak jakinarazi du 2009 urteko diru-laguntzak jaso nahi dituzten kirol klubek eta elkarte gastronomikoei otsailaren 28rako aurkeztu beharko dutela horretarako beharrezkoak diren dokumentazioak. Bi eratako laguntzak dira emango dituztenak: urteko ohizko jardueretarako, eta antolatzen dituzten jarduera berezietarako. Guztira 140.000 euro emango ditu.

Panticosara eski irteera antolatu dute Gaztelekuak eta Gazte Informazio Guneak otsailaren 28rako

Gaztelekuak eta Gazte Informazio Guneak Panticosara eski-snow irteera antolatu dute hilaren 28rako. Autobusa 5:00etan irtengo da Sigmako zubitik, eta 21:30ean bueltatuko da. Irteerak 40 euro balio ditu, bidaia, materialaren alokairua, forfaita eta aseguruia barne. Janaria bakoitzak berea eroan beharko du. Irteera 30 urtetik beherakoentzako da eta Gaztelekuko hezitzaileak joango dira adin txikiekokin. Izena emateko azken eguna, otsailak 16. Informazio gehiago: 943 741 461 edo 943 743 228 telefonoetan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Beasain 2 – Elgoibar 4 (Haundi)
Lagun Onak 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – Ilintxa 0 (Jub.)
Arrasate 1 – Elgoibar 2 (Kad.)
Elgoibar 1 – Idiazabal 0 (Inf.)
Elgoibar 2 – Hondarribia 1 (Txik.)
Elgoibar 1 – Ordizia 5 (Neskak)
Markina 1 – Elgoibar 10 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Goierri 2 (Nazional B)

ESKU PILOTA

Lagunak 1 17 – Lizardi Igeldo 22 (Sen. 1. maila)
Lagunak 2 22 – Ilunpe 1 11 (Sen. 1. maila)
Antiguoko 13 – Lagunak 2 22 (Sen. 1. maila)
Lagunak 16 – Usurbil 22 (Sen. 2. maila)
Lagunak 4 – Erniope 1 22 (Jub. 1. maila)

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa

Tecnifuelle Elg. 23 – Muzkiz 23 (Sen. neska)
Aloña Mendi 25 – Cometel Elg. 14 (Jub. mut.)
Aloña Mendi 8 – IMH Elg. 26 (Kad. mut.)
Lurraldeko Txapelketa
Leizaran 23 – Alcorta Elg. 30 (Sen. mut.)
Euskalduna Zatz. 28 – Pneumax Elg. 23 (Kad. mut.)
Aiala Zatz 21 – Ikus Elg. 18 (Kad. neska)
Aiala Zatz 11 – Aterpe Elg. 27 (Inf. neska)
Lezo 9 – Lili Elg. 32 (Inf. neska)
Txariduna Elg. 15 – Aloña 16 (Inf. mt.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7

11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Kad.)
16:30 Elgoibar – Amorebieta (Haundi)
18:30 Elgoibar – Mutriku (1. erreg.)

Domeka, 8

11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 6

22:00 Lagunak – Aretxabaleta (Jub. 2. maila)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

10:00 Astigarraga Elg. – Egia (Inf.nesk.)
11:30 Lili Elg. – Leizaran (Inf.nesk.)
17:30 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)
19:00 Alcorta Elg. – Urola (Sen. mut.)

Domekia, 8

11:00 Aterpe Elg. – Ereintza (Inf.nesk.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest, nagusiak zaintzen, garbiketari edo edozein lanetan. ☎ **696 246 962**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanetan edo haurrak eta nagusiak zaintzen. ☎ **669 064 252**
- Mutila lanerako prest, edozein lanetan. Egun guztian zehar. ☎ **660 193 999**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. 9etatik 16etara. Papelak ditu. ☎ **665 414 801**
- Emakume bat nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Interna egongo litzateke. ☎ **679 673 622**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka edo lanaldi osoa. ☎ **636 120 425**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteazken zehar edo asteburuetan. ☎ **680 808 125**
- Emakumea, haurrak eskolara eramane eta handik etxera ekartzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea, edozein garbiketa lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎ **690 701 118**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Emakume euskaldun bat pertsona nagusiak, gaixorak edo ezinduek zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **615 762 742**
- Andre euskaldun batek lan egin nahi du, esperientzia handia pertsonak nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauez. ☎ **943 744 433**
- Neska, lanerako prest, garbiketa lanetan edo umeak eta nagusiak zaintzen. ☎ **660 919 423**

- Emakumea garbiketarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649 212 944**
- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko prest edo soziedadekak, etxeak, eskailerak garbitzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Emakumea, lanerako prest, garbiketari, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zaintzen. ☎ **678 939 382**
- Emakumea, lanerako prest, bai haurrak edo nagusiak zaintzen, bai garbiketa lanetan eta baita zerbitzari lanetan ere. Egun guztian zehar. ☎ **680 250 527**
- Emakumea, lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan. Egun guztian zehar. ☎ **686 545 884**
- Mutila, lan egiteko prest. Edozein lanetan. ☎ **697 729 956**
- Emakumea, lanerako prest. Arratsalde nahiago, batez ere 14:00etatik 19:00etara. ☎ **696 246 962**

ESKAITZA

- Sukaldaria behar da. ☎ **688 627 617**
- Klase partikularrik ematen dira (ingeleseko titulu ofizialak prestatzeko eta selektibitateko). ☎ **605 739 536**
- Pertsona euskaldun baten bila nabil egunean 2 orduz euskarako klaseak emateko. ☎ **685 405 929**

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen da Mendaran. ☎ **658 379 393**
- Neska gaztea, logela baten bila Elgoibarren. ☎ **943 743 505**

SALGAI

- Etxebizitza salgai Nojan (Kantabria), urbanizazio pribatu batean eta berdegunearekin. Altzariz josia, 65m², berogailua eta bi plazako garajea. ☎ **639 211 185**
- Pisua salgai San Bartolome kalean. ☎ **627 603 437 / 662 401 585**

LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia. ☎ **943 741 436**

BESTELAKOAK

- Pastor aleman eta Mastin arteko txakurrak oparitzen ditut. 2 hilabete. ☎ **653 474 850 (Alex)**
- Urtarilaren 20an Herri Eskolan "Blanka" izena grabatua zuen eskulaba bat galdu zen. Norbaitek aurkitu baidu, mesedez dei dezala telefono zenbaki honetara: ☎ **943 741 868**
- Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa eta gortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Nintendo DS galdu nuen errege egunean Plaza inguruan. ☎ **679 684 318**
- Perla beltzak dituen Viceroy markako pultsera bat galdu da. Trenbide eta Santa kale bitartean. Eskertuko da pultsera bueltatzea. ☎ **688 664 727**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinaraziz!



**UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!**

ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES



OTSAILAK 12 - 18:00 osteguna
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@etec.mondragon.edu

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata
BIDASOA AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // iolartabal@bidaso.etec.mondragon.edu

ONDOKO TITULAZIO HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:

- > Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua
- > Nazioarteko Kudeaketako Idazkaritza Gradua
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua

www.etec.mondragon.edu



• Zorionak, **Oier**, atzo bi urteko egin zenituelako. Familia guztiaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Nala**, atzo hiru urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Elenen partez.



• Zorionak, **Josebto Jorge**, otsailaren 11n zure eguna delako. Emaztea, Amaia eta Jorge-Castro senideen partez.



• Zorionak, **Nora**, gaur sei urte bete dituzulako, maitasun handiz familia guztiaren partez eta bereziki lehen-gusuen eta Aneren partez.



• Zorionak, **June**, joan den domekan bost urte bete zenituelako. Muxu potolo bat ama eta familiaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, urtarillaren 30ean bi urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Eskerrik asko, **Naroa**, bi urte beteko dituzulako datorren astelehenean. Muxu bat familiaren partez, eta bereziki Danelen partez.



• Zorionak **Maleni** 7 patxo handi familia osoaren partez.



• Zorionak, **Udane**, gaur bi urte beteko dituzulako. Muxu bat familia guztiaren partez eta bereziki Adur eta Yaizaren partez.



• Zorionak **Nerea**! Hilaren 5ean bi urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez; batez ere zure lehengusu lkerren partez.



• Zorionak **Unax** atzo hiru urte bete zenituelako. Muxuak familia osoa, eta bereziki zure anaia Beñat-en partez.



• Zorionak, **Egoitz**, astartean lau urte egingo dituzu eta, aitatxo eta amatxoren partez. Muxu handi bat!



• Zorionak lau urteko gure super heroi faborituar! Ondo pasa **San blastxo**!!



• Zorionak **Luis** eta **Eudisia** bihar urrezko ezteiak ospatzen dituzuelako, bihotz-bihotzez familia guztiaren partez.

• Zorionak, **Rosa**, urtarillaren 29an urteak egin zenituelako Pilar ikastetxeko irakasleen eta bereziki 5. mailako ikasleen partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu
BARREneko bulegora edo
barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

OTSAILAK 7 - 11:00 larunbata **AULA MAGNA** ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.: 943 73 96 29 // lguerenu@eps.mondragon.edu

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA** ORDIZIA
Tel.: 943 88 00 62 // eunkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 12 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA** IRUN
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 19 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** ESKORITATZA
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

OKINDEGIA

8 domeka DOÑA MERCEDES

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 6 Fernandez
- 7 Yudego
- 8 Yudego
- 9 Zabaleta
- 10 Etxeberria (Errosario)
- 11 Ibañez
- 12 Garitaonandia
- 13 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net

6 barixakua

Erakusketa

19:00 Alberto Ramirezen
margoak eta eskulturak

Kultur Etxean egongo da ikusgai
hilaren 22ra arte.

Manifestazioa

19:30 Salbuespen egoerari
stop! Demokrazioa 3 milioi

Manifestazioa egingo da Plaza
Handitik hasita.

7 zapatua

Santa eskea

9:00 Santa eskea kalez kale

Etxegina taldeak antolatuta, ka-
lez kale egingo dute santa es-
kea hainbat herritarrek. Bolato-
kian elkartuko dira.

Ate irekiak

11:30 Herri Eskolako

ate irekiak

Herri Eskolan umeentzako jola-
sak egongo dira, eta ikastetxea
bisitatzeko aukera izango da.

8 domeka

Musika

12:30 Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. Adriana (M. Piñero)
2. Sleigh Ride (L. Anderson)
3. Bailando con lobos (J. Barry)
4. Movie Spectaculars (F. Bernaerts)
5. Chess (L. Anderson)

11 eguaztena

Hitzaldiak

18:30 Gurasoentzako
jardunaldiak

Herri Eskola eta BH Institutuko
Guraso Taldeak antolatuta,
gurasoen formaziorako
jardunaldiak: *Konpetentzien*
garapenean oinarritutako
ikaskuntza. Hizlaria: Maite Perez.
Kultur Etxean.

Elkarteratzea

19:00 Madalako errotondan
presoan alde

Presoen aldeko kontzentrazioa
egingo dute Madalako
errotondan.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 6

Eskulanak 17:00

ZAPATUA 7

Makillaje eta orrazkera ikastaroa 17:00

DOMEKA 8

Makillaje eta orrazkera ikastaroa 17:00

MARTITZENA 10

Mozorro prestaketa 17:00

EGUAZTENA 11

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 12

Ordenagailuak jolasak 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 6

Jolas libre 16:30

ASTELEHENA 9

Wii 17:30

MARTITZENA 10

Irakurketa txokoa 16:30

EGUAZTENA 11

Non dago Ludo? 17:30

EGUENA 12

Marrakki txokoa 17:30



«Crepúsculo»

6, barixakua: 22:15
7, zapatua: 19:00/22:15
8, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30

«Madagascar»

8, domeka: 16:30

«La cuestión humana» (Ongarri zine-kluba)

12, eguena: 21:30



12 eguna

Ate irekiak

18:00 IMHko Heziketa

Zikloen ate irekiak

IMHko heziketa zikloen ate irekiak.

Hitzaldia

19:30 Asis Sarea

Jesus Artola frantziskotarrak Asis Sareari buruzko hitzaldia eskainiko du. Santa Klarako komentuan.

13 barixakua

Manifestazioa

20:00 Torturaren kontrako

eguna

Torturaren kontrako eguna dela-eta, manifestazioa egingo dute Plaza Handitik hasita.

Antzerkia

22:15 'Kanpaiak jo bitartean'

Glu-glu produkzioak taldeak Kanpaiak jo bitartean antzezlan estreinatuko du Herriko Antzokian, Korrika kulturalaren barruan.

Zerikasi

IKASTAROAK

Irudiak Gimp programaren bidez

Norentzat: 25 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: Otsailak 9

Non: Elgoibarren

Izenemate bukaera: Kantsultatu

Argazkigintza digitala

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: Otsailak 16

Non: Eibarren

Izenemate bukaera: Otsailak 12

Ipunkontaketa ikastaroa

Norentzat: Gurasoentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera data: Otsailak 28

Non: Mutrikun

Izena emateko: Otsailak 13

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

I. URTEURRENA

JAVIER EZENARRO ARTOLAZABAL



*Aldatu ezin dena onartzeko patxada,
alda daitekeena aldatzeko adorea,
bien artean bereizten jakiteko argitasuna*

2008ko otsailaren 5ean hil zen. I. urteurreneko meza domekan, otsailaren 8an, izango da eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Argazkiak

Goitibehera jaitsiera egin zuten Elgoibar BH institutukoek.



Diana egin nahian aritu ziren, dardoa eskuan hartuta.



Pala txikia eskuan,
ping-pong-ean
jokatzen.



Bizikleta gainean eseri eta pedalei ematen jardun zuten ikasleek.



Atxintxika egin zuten Mintxetan.



Patata-tortilla bikaina egin zuten bi mutilek.

Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net


Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Otsailak 7

MATRIKULAZIOA

2009 - 2010

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

OTSAILAREN 2tik 13ra



Elgoibar Arreiture BHI
San Roke, 11
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

"ESTREINALDIA"

OTSAILAREN 13an OSTIRALA
22:15ean HERRIKO ANTZOKIAN



Elgoibarko Udala
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



16. korrika *aek*



Eusko Jaurlaritza



SAREA